

**HERRI BATZARRA ITSASON
Apirilaren 6an, larunbata, 19:00etan
AKTA**

Itsasoar guztioi adeitasunez,

Jarraian, 2019ko apirilaren 6an burutu genuen HERRI BATZARREKO AKTA jasotzen da.

1.- Itsasoko Udalaren bi urteetako balantzea partekatu da:

Udala sortu zenetik pasa diren bi urteetako egitura errepasatu da. Horretarako 6 multzotan banatu dira aurrera eramandako zereginak, laburpen eta lorpen gisara:

ZERBITZUAK: Epe eta iraupen desberdinetarako Udalak sortu dituen lanpostuei dagozkie: Administraria, herri langilea, Gizarte langilea, garbitzailea, begiraleak, dinamizatzailea, konposta gunea kudeatuko duena, ...

BARNE-HARREMANAK: Herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko sortutako antolaketari dagokio:

- . Herri Batzarrak (urtean hiru) eta Alegiako bilerak (3)
- . Batzordeak (15ean behin elkartu direnak):
 - Sozio-kultural batzordea: Auzolanak, ikastaroak, formazio saioak, irakurle taldea, adinduen ariketa psiko-soziala, Korrika, udalekuak, Euskaraldia.
 - Komunikazio, partaidetza eta gardentasunerako batzordea: Web orria, WhatsApp taldea, posta elektronikoa, paperezkoa, informazio panelak, Twitter-a, Instagram-a.
 - Azpiegitura eta ingurumen batzordea:
 - Diru-laguntzen bidez gauzatutakoak: herri bideak, Udaleko obra, Alegiako bidegurutzak, Alegiako parkea, Bide berdea, Konektibitatea, Goiko Ostaturako egituraren analisia, Artxiboa, ubideen garbiketa eta kanalizazioa, errepide nagusiko seinalitika, elizatariko argiteria...
 - Ordenantzak eta baimenak: EIT/ITE, pinudiak ateratzeak, deskontaminazioa, zaborrak, zuntz optikoa, lizentziak (baserri obretarako/ustiaketakarako/lantegietan)...

KANPO-HARREMANAK: Foru Aldundia, Gabiria eta Ormaiztegi Udala, Ezkioko Udala (Jarraipen Batzordea), Sasieta Mankomunitatea, Goieki, Herri Txikiak eta landa eremua, Siadeco, Ur Kontsorzioa,

DIRU- LAGUNTZAK: Udalak diruz lagundu dituen erakunde, talde edo banakakoei dagokie: Festa batzordeak, korala, fatxadak margotzeko, euskara sustatzeko, dantza eta futbol taldea, Hitza.

HITZARMENAK: Udalak erakunde edo taldeekin egin dituen hitzarmenei dagokie: Foru Aldundia, Eliz junta, Gabiriako Udala, Redesa, Alegiako Elkartea, Beasain eta Azpeitiko Udalekin.

AURRERANTZEAN: Batzordeetan atera diren gaiak eta burutzeko prozesuan daudenei dagokie: Parte-hartze prozesua (etxebizitza politika, eraginkortasun energetikoa, ... barne), herri bideak, Kizkitzako pagadia, kolunbarioa, argiteria publikoa, lursail publikoak erostea, Udaleko (gela erabil-anitza eta teilatua) eta Alegiako obren jarraipena (bulebarizazioa), ...

Josemari Barrenetxea ere gogoan izan dugu esker onez, bi urte garrantzitsu hauetan bidelagun izan dugun kidea.

2.- Itsasoko Udal Batzordea aukeratzeko irizpideak, prozedura eta data erabaki

Lehenik, gaur egungo egoeraren berri eman da:

Oraindik Madrilen Itsaso moduan inskribatu gabe jarraitzen dugu, baina notizia izan da Aldundiak inskripzioaren ukatzeari ezarritako



errekurtsoa tramitera onartua izan dela, eta beraz Madrileko “Tribunal Supremo”ak ebatzi beharko du epaia. Bide batez, Imanol Lasak Itsaso herriarekiko babesa berretsiz egindako adierazpen esanguratsuak aipatu dira.

Honenbestez, sententzia izan artean eta hauteskunderi begira hau da itsasoarren egoera:


- **Apirilaren 28an** Madrilgo Kongresu eta Senaturako **Santa Lutziko udaletxera** joan beharko dugu.
- **Maiatzaren 26an** Gipuzkoako Batzar Nagusietarako eta Europarako hautestontziak ere **Santa Lutziko udaletxean** izango ditugu. Bertan ere, Ezkioko Udala hautatzeko mahaia izango da, baina itsasoarrok ez dugu horretan parte-hartuko.

Itsasoko Udala osatzeko, berriz, **geure aldetik Batzordea aukeratzeko prozesua egin behar dugu** eta **ondoren Foru Aldundiak onartuko** du. Aurrekoan bezala, Itsasoko Udalaren kudeaketa herritarrengandik gertutasunean, begirunean, gardentasunean eta partaidetzan oinarritzea nahi da. Horretarako erabaki hauek hartu dira:

- Itsasoarrok askatasun osoz **edozein herritarrei bozka** emateko aukera izatea (gehienez 5 izen)
- Bozkarako eguna: **maiatzaren 5a**, igandea
- Bozkarako lekuak: **Itsasoko Udal Aretoa** eta **Alegiako Elkartea**. Bakoitzean egongo diren bina mahaikide izendatu dira.
- Ordutegia: **10:30-13:30**. Jarraian kontaketa irekia mahai bakoitzean. Azken emaitza Udal Aretoan.
- Bozka emateko Itsason erroldatutako **16 urtetik gorakoek** eskubidea izango dute.
- **Etxe bateko bozka guztiak familiako** batek eramateko aukera izango du.
- Norbaitek ezingo balu, botoa **aldez aurretik Udalean** uzteko aukera izango luke.
- Aurrez papeletak sobreetan sartuta etxez etxe banatuko dira.

Talde osatzeko garaian kontuan hartu beharreko irizpideak taldeetan landu dira:

- . Orain arte Udalean parte hartu dutenen ezagutza, esperientzia eta jarraikotasunari eustea.
- . Herriko eremu/zozkera desberdinetakoak izatea eta etxe bakoitzetik bakarra.
- . Ahal dela, adin eta belaunaldi guztiak ordezkatuak izatea.
- . Gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna bermatzea.
- . Prestakuntza eta ibilbide anitzez lantaldea aberastea.



3.- Apirilaren 13an izango dugun auzolana landu da eta jada deialdia banatu da.

4.- Iparragirre apirilaren 6an, Batzarraren egun berean, hil zela gogorarazteko, Zozabarroko panelean jarriko den oroigarria aurkeztu da.

UDAL BATZORDEA



Itsason 2019ko apirilaren 9a

Jose Mari Iparragirre
Urretxu, 1820/08/12 - Itsaso, 1881/04/6

Gernikako Arbola

Gernikako Arbola da berberetasunaren artean gertu mirakoa. Erria ta zabal zaba munduan frutua adierazten auzoari Arbola santua.	Mila urte inguru da ezten dirako lanak jantzi zela Gernikako Arbola. Zaude bada udalari orain ta denbora ematen hasiera arria galdu gero.	Ez zere oronko Arbola mirakoa baldin portatzen bada Belduak berrin. Laurok hartuko degu zurekin partea galkin bil deitin, euskalun jendea.	Besiko bil deitin laurok ematen jantzi galkin danok lota berrin. Ez bihotzetikan eukatu eukero Arbola biko da orain eta gero.
Arbola botatila dutele pentatu Euskal Herri guttan dauk badalago. Et bada jendea denbora orain-degi erori galkinaren eduki beilar degu.	Beti apogio zere udaberrikas lore aniztasunak ematen gabeko. Emaki raitet bada bihotz gurekoa denbora galdu gabe emanik frutua.	Arbolak ematen du kontu bihotzko eta bihotzetikan laurok ezatuko. Gernik nahi ez degu pakek beko gure lege zuzenak heman mutlatzeko.	Erengak diragun faungiko lanari pakek ematen orain eta beti. Bai eta indarna ere zuzenen lanari eta berditioa Euskal Herriari.